



**2022KO EKAINAREN 6KO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita biko ekainaren seian, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2022ko maiatzaren 23an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartu delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira. Aztertu ondoren 2022ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 28 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, HOGEITA HAMAZAZPI MILA ZORTZIEHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI euro ETA BI zentimo (37.837,02 €)takoa onartzea erabaki da.

III.- FUTBOL ZELAIKO ARGITERIA BERRITZEKO KONTRATAZIO ESPEDIENTEA HASTEA.-

Harizti Handi Futbol Zelaian argiteria led sistemara pasatzeko kontratazio espedientea hastea planteatzen da. Lanen aurrekontua 178.567,86 € da eta honi B.E.Z.ri dagokion 37.499,25 € gehitu behar zaizkio, guztira 216.067,11 €.

Lanak egiteko aurreikusitako epea 4 hilabetekoa da.

Lan hauek Ezketa S.L.P.ko Izaskun Larzabal Arzallus arkitektoak idatzitako 2022ko maiatzeko data daraman proiektuan jasota daude.

Gaia aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, kontratazio espediente hastea erabaki du.

IV.- ENIRIO-ARALAR MANKOMUNITATEKO 2022KO UDAL EKARPENA.-

Ordiziako Udalak Enirio-Aralar Mankomunitateko 2022 udal ekarpena egiteko eskatu du, zenbatekoa iazko kopuru bera izango dela adieraziz, hau da hiruhilabeteko lau ordainketen bidez guztira 10.385,84 €.

Altuna zinegotziak (EAJ), Mankomunitatean Lazkaoko Udalaren ordezkaria denak, esan du oraindik aurtengo aurrekontua ez dela onartu eta beraz aurtengoa egin beharreko ekarpenak ere ez, eta informazio gehiago izan arte gaia mahai gainean uztea proposatu du.



Ormazabal zinegotziak (EH Bildu) esan du ez datozela bat mahai gainean uztearekin. Beraiek ordainketa onartzea planteatzen dute eskatu beharreko informazioa eskatuz.

Hau honela, Tokiko Gobernu Batzarrak, aldeko hiru botu (EAJ) eta aurkako bi botu (EH Bildu) gaia mahai gainean uztea erabaki du.

V.- GIZARTE ZERBITZUETAKO LAGUNTZAK.-

Gizarte Zerbitzuetako Batzordeak aurkeztutako proposamenak aztertu ondoren, Gobernu Batzordeak honako erabaki hauek hartu ditu:

Elxeko Laguntza Zerbitzua.-

- 22-11-06 zbk.dun esped.: zerbitzuan alta ematea ekainaren 13tik aurrera astean 5 ordu laguntza pertsonalerako. Onuradunaren ekarpena zerbitzu kostuaren %100 da.

Ludoteka zerbitzurako dirulaguntza.-

Haur hezkuntza 3 urtetatik lehen hezkuntzako seigarren maila artean dauden 6 haurri, bere espedientean zerrendatzen direnak, ludoteka zerbitzura joateko ordaindu beharreko kuotaren pareko dirulaguntza ematea, guztira 450,00 €.

Gazte laguntzaileentzat beka.-

Iritz Barandiaran Eizmendiri 2022ko uztailaren 30etik 2022ko abuztuaren 19ra Galapago uharteetan, Ekuador, "komunitateko praktika onak indartzeko" boluntario bidaia egiteko 2.000 € dirulaguntza ematea. Zenbateko honen %50 orain ordainduko zaio eta beste %50 bidaia egin ondoren.

VI.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzordetik egindako proposamenak ikusi ondoren Tokiko Gobernu batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:

Martin Mari Aranburu Iturrioz.-

Txistulari taldeko partaide gisa, eta txistulari taldeko danbor bat konpontzeagatik, 60 € dirulaguntza ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.03.338.00 partidatik egingo da.

Gerniko Kultur Elkartea.-

Euskarazko film laburren XIX. zirkuitua izan den aurtengo 2022ko LABURBIRA emanaldia antolatzeagatik, 447,70 € ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.


LAZKAOKO
UDALA

VII.- EUSKARAKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordetik egindako proposamenen aurrean Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hauek onartu ditu:



Gida baimena euskaraz ateratzeagatik.-

Bere espedientean dagoen zerrendaren arabera gida baimena euskaraz atera duten bi laguni bakoitzari 100€ ematea.

Ordainketa aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik egingo da.

VIII.- JARDUERA EKONOMIKOKO ARLO DIRULAGUNTZAK .-

Jarduera ekonomikoko batzordetik merkatariei dirulaguntzak emateko egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu batzarrak, honako erabaki hau hartu du:

- Lazkaoko merkataritzaren sustapenerako Lazkaoko Udalak 2022ko maiatzean martxan jarritako erosketa bonuen kanpainaren barnean, parte hartu duten hainbat merkatarik beraien saltokitan jasotako bonuak ekarri dituzte Udalera eta ondorioz dagokien merkatariei bigarren ordainketa egitea proposatzen da:

Merkataria	Zenbatekoa
MARIANA OSTERGAG (MAMUFO)	95 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	1.220 €
JAUREGI ELEKTRIZITATEA	965 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	225 €
JAVIER GUTIERREZ HERNANDEZ (UNARO)	270 €
IGONE ARAMENDI AMENABAR (XANU)	1.725 €
MIKEL LUZURIAGA (MIKEL OPTIKA)	6.165 €
NAGORE COLORADO... (MANAKO)	2.955 €
GARAZI ZUFIRIA (ARRIARAN MERTZ.)	370 €
BELEN ARANES FARMAZIA	445 €
GARIN ANAIK OKINDEGIA	95 €
OLATZ RISCO URSUA (PARAFARMAZIA)	300 €
MILA MTNEZ. (DIGITAL IZAR)	55 €
AINITZE KORTA (MISZELANIA)	420 €
EIDER LUNA (STYLO ILEAPAINDEGIA)	675 €
ARANTXA FERNANDEZ (GAZI GOZO)	800 €
MARIANA OSTERTAG (MAMUFO)	65 €
PELLO BIDEKAIN (HARATEGIA)	1.280 €
M ^a ISABEL MURUA (ANDERE LURRIN)	365 €
AMAIA SUKIA MAIZ (AMETS BAT)	1.060 €
MIREIA ESTEVEZ RODRIGUEZ (KOBLOI)	665 €
GOLOPAR SL	65 €
NEKANE GARMENDIA...CB (GARAIZ)	2.680 €
GUZTIRA	22.960 €

Ordainketa hauengatik udalari dagokion gastua aurrekontuaren 1 471.02.430.00 partidatik ordainduko da.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko seiak hogei gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.



LAZKAOKO
UDALA

A handwritten signature in blue ink, consisting of a large loop followed by a horizontal line.